

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, zeinaren bidez onesten baitira gazteriako erdi-mailako teknikariaren 1 plaza betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak.

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak, alkatearen 2019ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez eta Gobernu Batzordeak data berean hartutako Erabakia-
ren bidez bere gain utzitako eskumenak baliatuta, hauxe xedatu du, 2022ko uztailaren 15eko Ebazpen bidez:

«*Lehenengoa:* Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari erantsitako 127. artikuluan, eta Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorruta, gazteriako erdi-mailako teknikariaren 1 plaza (A lanbide-sailkapena, A-2 azpitaldea, euskarako derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna) betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onesten dira. Plaza hori Administrazio Bereziko Eskalakoa da, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, zeregin berezien klasekoa, eta A-2 taldeari dagozkion ordainsariak ditu); 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokio, eta oposizio bidezko sarbide libreko sistemaz beteko da (oinarriak Ebazpen honen eranskin gisa jaso dira). Deialdiaren oinarriak onesteaz gain, hautaketa-prozesuaren deialdia egiten da.

Bigarrena: Nahi izanez gero, Ebazpen honen aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da Ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera.»

Bilbon, 2022ko uztailaren 15ean. — Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko zuzendaria

**ERANSKINA****GAZTERIAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAREN 1 PLAZA JABETZAN
BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Eskainitako plazak**

Oinarri espezifiko hauek eta indarreko oinarri orokorrek arautuko dute gazterriako erdi-mailako teknikariaren 1 plaza (A lanbide-sailkapena, A-2 azpitaldea eta euskarako derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna) oposizio bidezko sarbide libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesua. Plaza, bestalde, Administrazio Bereziko Eskalakoa da, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, zeregin berezien klasekoa. A-2 taldeari dagozkion ordainsariak ditu, eta 2022ko lan-eskaintza publikokoa da.

Bilboko Udaleko plantillako plazak jabetzan betetzeko orduan, deialdiaren oinarri orokorretako hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera (BAO, 2020ko uztailaren 10a, 131. zk.), deialdian eskaintzen den plaza kopurua handitu ahal izango da, deialdi honen ostean onartutako enplegu publikoko eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza kopuruaren gehikuntza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate udalburuaren ebazpen bidez, eta adierazi beharko da zenbatek duten hizkuntza-eskakizuna betetzeko derrigortasun-data ezarrita. Eta, edozelan ere, gehikuntza egin beharko da gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratu aurretik, oposizio- eta lehiaketa-faseak amaitu ostean.

Bi. — Baldintza espezifikoak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Hauetako bat edukitzea edo eskabideak aurkezteko epea amaitzerako lortu ahal izatea: arkitektura teknikoko edo ingeniari-ta teknikoko unibertsitate-titulua, diplomatura, edo gradua.
- Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokorretako bosgarren oinarriko lehen puntuan ezarritako baldintzetan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko uztailaren 10ekoa, 131. zenbakia).
- Gaitasuna: bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea, eta egiaztatzea desgaitasun-maila ez dela oztopo eskaintzen den plazari dagozkien lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Gaitasun hori Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute, oinarri hauen hamabigarrenean ezarritakoarekin bat, lan-arriskuen prebentzioari buruzko indarreko arauak aintzat hartuta pertsonak lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko egin beharreko egokitzapenak gora-behera.
- Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gora ez izatea.
- Gaikuntza: administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organismo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik diziplina-espediente bitartez baztertuta ez egotea; eta kargu edo enplegu publikoak betetzeko, edo funtzionarioen kidego edo eskaletara sartzeko ebazpen judizial bidezko desgaitasun absolutu edo berezia ez edukitzea.
Beste estatu bateko herritarrei dagokienez, desgaituta edo antzeko egoeran ez egotea; eta beren estatuan enplegu publikoan sartzeko eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik jaso ez izana.
- Legezko desgaitasun- edo bateraezintasun-kausa baten pean ez egotea; alegia, administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako arazoak edozeinen pean ez egotea. Hori, baina, ez da eragozpen izango, dagoeneko kargu publiko edo jardura pribatu bateraezin batean ibiliz gero, araudi horretan aipatutako aukera egiteko eskubidea baliatzeko.



- g) Tasak: azterketa-eskubideagatik indarrean dagoen tasa ordainduta izatea, eska-bideak aurkezteko epearen barruan. Tasa hori dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean dago ezarrita.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte baldintza guztiak. Era berean, gainerako baldintza guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuan zehar, izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz c) atalean ezarritakoa izan ezik: kasu horretan, Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatu beharko dute, hautagaia praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, hautaketa-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu hautagairen batek ez dituela deialdiko baldintzak betetzen, hautagai hori baztertua geratuko da, entzunaldia egin ondoren, eta, egun berean, epaimahaiak horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Hiru. — Azterketa-eskubideak

Sei eurokoak (6,00 euro) izango dira.

Zenbateko hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu ahal da. Pasabide horretara sartzeko, eskabide-orria bete behar da, web-orri honetan: <https://ope.bilbao.eus>. Era berean, azterketa-tasak ordain daitezke barra-kodea duen ordainagiriaren edo eskabidearen kopia jaitsi, eta dokumentu horretan adierazitako Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta.

Halaber, telematikokoak ez diren bitartekoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, tasaren ordainketa egin ahalko da Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeke eta Kudeatzeko Zuzendaritzara (Venezuela plaza 2, 5. solairua, 48001 Bilbo) bidalitako posta bidezko igorpenaz. Posta bidezko igorpenaren egiaztagiria aurkeztu beharko da oinarri hauetan erantsitako eskabide ofizialaren ereduarekin batera.

Edozelan ere, azterketa-eskubideak ordaindu beharko dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Lau. — Eskabideak

Eskabideak Internet bidez edota paperean aurkeztu ahalko dira.

Eskabide telematikokoak eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira. Web-orri honetan eskuratu daitezke: <https://ope.bilbao.eus>.

Eskabide horiek aurkeztuko dira helbide elektroniko horretan bertan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskarian adierazi beharko da, behar bezala eta zerrenda batean, baldintzak eta aurkeztutako merezimenduak betetzen direla. Ez da ziurtagirien kopiarik aurkeztu behar eskariarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Sailaren barruko Langileak Antolatzeke eta Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen dituenean ziurtatu beharko dira parte hartzeko baldintzak eta aipatutako merezimenduak.

Paperezko formatuan aurkezten diren eskabideen kasuan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan aurkeztu ahalko dira. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, zeina azterketa-tasa ordaintzeko posta bidezko igorpenarekin batera aurkeztu beharko baita.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, hoguei (20) egun balioduneko epean bete beharko da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, domekak eta jaiegunak ez ezik, zapatuak ere ez dira egun baliodunak izango.

Era berean, hautagaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte, eta, aldi berean, eskabidea formalizatzean, baimena eman ahalko dute beharrezko agiriak telematikoki kontsultatzeko: NANA, titulu akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak,



etab. Baimena eman ez gero, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko, baldin eta aukera badago kontsulta elkarreragingarritasun informatiko bidez egiteko.

Hautaketa-prozesu honetako emaitzekin lan-poltsa bat eratu, eta Bilboko Udaleko lan-poltsak kudeatzeko indarreko irizpideen arabera kudeatuko da. Irizpide horiek izango dira lan-poltsak eratzen direnean indarrean daudenak, zeinak sindikatuekin alde zuzeneko negoziatuta egongo baitira. Lan-poltsa hori izaera publikoko beste administrazio edo erakunde batzuen eskura jarri ahal da, lehen aipatutako Erabakian adierazitako irizpideen arabera.

Oinarri orokorretako hamaikagarrena lan-poltsak eratzeari buruzkoa da (oinarri orokorra Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren: 131. zk., 2020ko uztailaren 10ekoa), eta, bertan ezarritakoaren arabera, hautagaiek, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, adierazi beharko dute ea baimenik ematen duten ala ez beren datu hauek Administrazio Publikoaren beste erakunde batzuei lagatzeko: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak egin ahal izatea, legezko baldintzetan. Hautagaiek beren datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez badute, ulertuko da ez dutela baimenik ematen.

Bost. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian buroia, idazkari bat, eta, gutxienez, hiru kide egongo dira. Horien artean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da, derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira, eta osaera espezialitatearen printzipioan oinarrituko da. Hortaz, kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatutako titulu edo maila akademiko bera edo goragokoa eduki beharko dute; eta epaimahaikideen erdiek, gutxienez, hautaketa-probetako jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute. Era berean, epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkaritza % 40koa izango da, gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada.

Euskararen jakintza-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako epaimahaikideak horretan bakarrik jardungo du, eta lehen aipatutako kideei erantsiko zaie.

Sei. — Hautaketa-prozesua

Hautagaiak oposizio bidezko sarrera libreko sistemaren bidez aukeratuko dira, non hiru ariketa egongo diren. Prozesua osatzeko, praktikaldia egingo da.

Oinarri orokorretan ezarritakoaren kalterik gabe, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiaren ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratuko dira.

Oposizioan hiru azterketa egin beharko dira, derrigorrezkoak eta baztertzailerak:

Lehenengo ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzailerak

Bi zati izango ditu, egun berean egingo direnak, bata bestearen ostean. Epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die hautagaiei, zati baten eta bestearen artean.

Lehenengo zatian, idatziz erantzun beharko dira test motako 60 galdera, aurretiaz <https://ope.bilbao.eus> webgunean argitaratutako galdera-sortaren artean epaimahaiak erabakitakoak. Horietatik, 50 bakarrik ebaluatuko dira, eta 10 ordezkotakoak izango dira. Galderok epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehazten duen gehieneko denboran erantzun behar dira. Galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu, eta bakarra izango da zuzena. Galderak deialdiaren eranskineko programako zati orokorretik aterako dira (1etik 12ra bitarteko gaiak).

Azken 10 galderak ordezkotakoak izango dira: bakarrik hartuko dira kontuan lehenengo 50 galderetakoak bat baliogabetzen bada.



Zati horri 0,00 (zero) eta 5,00 (bost) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Zati horretan, erantzun zuzen bakoitzeko 1,00 (bat) puntu emango da, eta okerreko erantzun bakoitzagatik 0,33 puntu (hogeita hamahiru ehuneko) kenduko da; hartara, zuzenean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 50,00 (berrogeita hamar) puntukoa izango da, alegia, azken puntuazioko 5,00 (bost) punturen adinekoa.

Ez da punturik kenduko erantzun gabe utzitako galderengatik eta erantzun biko galderengatik.

Bigarren zatian, gai-zerrendako zati espezifikoko gai 2 idatziz garatu beharko dira, epaimahaiak ausaz ateratako 5 gaien artetik aukeratuta.

Ariketa egiteko, gehienez 3 ordu izango dira.

Ariketaren zati hori egiten hasi aurretik, epaimahaiak jakitera emango du zeintzuk diren zuzentzeko irizpideak eta nola emango diren puntuak.

Bigarren zati horretan 0,00 (zero) eta 15,00 (hamabost) puntu arteko kalifikazioa emango da.

Ariketa horri 0,00 (zero) eta 20,00 (hogeit) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak, prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzaila

Ariketa hasi aurretik epaimahaiak proposatutako artetik aukeratutako kasu praktiko bat ebatzi beharko da, gehienez ere ordu bitan.

Ariketaren zati hori egiten hasi aurretik, epaimahaiak jakitera emango du zeintzuk diren zuzentzeko irizpideak eta nola emango diren puntuak.

Ariketa horri 0,00 (zero) eta 20,00 (hogeit) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak, prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa (euskarako proba): derrigorrezkoa eta baztertzaila

Proba horretan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da, epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1 artikulua.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek, eta euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten pertsonak. Horretarako, parte-hartzaileak baimen espresua eman beharko dio Bilboko Udalari, titulua aipatutako erregistroan egiaztatzeko. Hautagaiak ez badu baimen hori ematen, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, epaimahaiak hala eskatzen dionean.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 47/2012 Dekretuaren babespean, berriz, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, baldin eta ariketa hau egin aurrekoak badira.

Ariketa horretan, euskarazko proban, gai edo ez gal kalifikazioa emango da.

Oposizioaren gehieneko puntuazioa

Oposizioan, gehienez ere, 40,00 (berrogei) puntu lortu ahalko dira.

Zazpi. — Oposizioaren behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesuaosatzen duten ariketen kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du, oposizioa gainditu duten pertsonak lortutako puntuen hurrenkeran. Pertsona horien kopurua ez da izango eskainitako plazen kopurua baino handiagoa (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6/1989 Legearen 32. artikulua). Epai-



mahaiak, gero, alkate udalburuari bidaliko dio zerrenda hori, eta izendapen-proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, oposizio-fasea gainditu, baina plazarik lortu ez duten hautagaien zerrendarekin (hori ere, puntuazio-hurrenkeraren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Zerrenda horretan egoteak ez du beste inolako eskubiderik emango, oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Lan-poltsak kudeatzeko udal araudiarekin bat etorrira, oposizio-fasea kalifikatu ondoren, hautaketa-prozesua osorik gainditu ez, baina gutxienez ariketa bat gainditu duten pertsonen dei egingo zaie, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) iragarkia argitaratuz, lan-poltsan sartzeko betekizunak eta merezimenduak egiaztatzen. Behin agiri guztiak egiaztatuta, zerrenda argitaratuko da, leku berberetan.

Zortzi.— Agiriak aurkeztea

Oinarri orokorren hamabigarrenean ezarritakoaren arabera egingo da.

Funtzionario izateko proposatutako hautagaiek 20 eguneko epea izango dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hasita, Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatutako ziurtagiriak aurkezteko.

Hautagaiek, edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak. Kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta, orobat, beren zerbitzu orrietan ageri diren gainerako gorabeherak egiaztatuz.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako epearen barruan deialdian parte hartzeko eskatutako betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkeztu ez dituzten pertsonak, edo agiriak aztertuta edo osasun-azterketaren ondorioz ikusten bada baldintzetakoren bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira, eta, beraz, ezingo dira funtzionario izendatuak izan. Hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordura arte egindako jarduketako guztiak eta, gainera, gerta liteke erantzukizunen bat izatea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean okerreko datuak azaltzea-gatik. Alkate-udalburuak, kasu horretan, hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenen aldeko izendapen proposamena egingo du; baliogabetze horren ondorioz eskaintako plaza kopurua berdintzeko beste hautagaien alde, hain zuzen.

Bederatzi.— Praktikaldia eta izendapena

Hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango da praktikaldia; bertan izango dira oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak. Ezingo da egon deialdiko plaza baino hautagai gehiago. Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erabakiko du zein sailetan gauzatu behar den fase hori. Gehienez ere, sei hilabete iraungo du praktikaldiak, eta datak sasoiz iragarriko dira.

Ebaluazio-prozedurak jarraipena izango du praktikaldian zehar, eta bakarrik etengo da aldi horretan zehar modu puntualean edo metatuan gertatutako hamabost egun natural baino gehiagoko absentsia justifikatuetan. Kasu horretan, interesdunak osatu egin beharko du ezarritako epe osoa.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izango dira, eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko. Era berean, alta emango zaie funtzionarioei dagokien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan egongo dira, izendapen-ebazpenean adierazitako datatik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da, eta beharrezkoa izango da GAI kalifikazioa lortzea hautaketa-prozesuko fase hori gainditzeko.



Praktikaldian, ebaluatuko dira deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatutako trebeziak eta gaitasunak, bai ezaguera teknikoen aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenen, eta lantaldeetan jarduteko eta barruko eta kanpoko harremanetarako gaitasunen ikuspegitik.

Praktikaldia amaituta, saileko zuzendariak hautagai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du, adieraziz ea, bere ustez, hautagaiak behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta, hark, txostena azterturik, hautagaiak praktikaldia gainditu duen ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio epaimahaiak alkate udalburuari.

Hautagaien izendapena bertan behera utzi ahalko da praktikaldiaren edozein unetan, hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzaileari, eta, hark, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkate udalburuari.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Oposizio-faseko puntuazioa batuta ezarriko da behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-hurrenkera. Hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapena interesdunei jakinaraziko zaie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta Udaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da (<https://ope.bilbao.eus>).

Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea

Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetu beharko dira, eta Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 c) artikuluan eskatutako baldintza bete beharko dute. Horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango dute, izendapena jakinarazten zaien dataren biharamunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan eta bidezko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da, eta beren eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, Korporazioko alkate udalburuak praktikaldirako izendapena proposatuko du oposizioko ariketak gainditu, eta, oposizioko puntuak batuta, baloraziorik onena lortu duten hautagaien alde —aipatutako uko egitearen ondorioz bete gabe geratu diren plazak betetzeko behar beste hautagai proposatuko ditu—, oinarri hauetako zazpigarrenean ezarritakoaren arabera.

Karrerako funtzionario izendatutako pertsonak, lanpostuaz jabetzen diren unean, lanpostua erreserbatzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, hutsik uzten dituzten plazak esleitu ahalko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak egiten duen karrerako funtzionarioen izendapen-proposamen osagarria erabiliko da.

Hamabi. — Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean; edo, bestela, oinarrien aurka jo ahalko da, zuzenean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, epea hasiko da oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean. Hori horrela da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. Artikuluen, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera.

**I. ERANSKINA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Euskal Herriaren eskumenak: eskubidoak, legegintza garatzekoak eta betearaztekoak.
3. gaia: Udalerria. Biztanle kopuru handiko udalerrietako udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena: X. titulua).
4. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.
5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen betebeharrak eta eskubideak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
7. GAIA: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriak.
8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko. Datuen Babeserako Araudi Orokorra (2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/EB Zuzentaraua baliogabetu baitzuen).
10. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako. Andrazkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunerako Udalaren V. Plana.
11. gaia: Kontratazio administratiboa. Motak: elementuak eta subjektuak, kontratu publikoen objektua eta kausa. Kontratazioaren forma eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuen formalizazioa.
12. gaia: Giza baliabideak erregulatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.

II. ZATIA**ZATI ESPEZIFIKOA**

13. gaia: Gazteriaren Europako Estrategia 2019-2027. Ereduak, helburuak eta jomugak.
14. gaia: Erronka demografikoa Europan. Erronka demografikorako Euskal Estrategia 2030.
15. gaia: Gazteentzako Europako baliabideak: Gazteriaren Europako Ataria, Gazte Informazio Zerbitzuak (Europe Direct, Eurodesk, Eures) eta Europass curriculum vitaeak.
16. gaia: Erasmus Gaztedia + 2021-2027 programa: kontzeptua, jasotzaileak eta ekintzak.
17. gaia: Europako Elkartasun Kidegoa: helburuak, jasotzaileak: organizazioak eta gazteak, egitura, eta Europako Elkartasun Kidegoaren organizazioentzako zigorak.
18. gaia: Garapen Jasangarriko agenda eta helburuak. Agenda 2030. Agenda 2030aren lehentasunen euskal egitaraua.
19. gaia: Gazteria-politiken bilakaera estatuan eta autonomia-erkidegoan.
20. gaia: INJUVE Gazteriaren Institutua: helburuak, jarduketaren planak eta harremanak beste erakunde batzuekin.



21. gaia: 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena: euskal administrazio publikoen eskumenak eta eskudantziak.
22. gaia: 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena: gazteriaren sustapenerako tresnak eta neurriak.
23. gaia: Bilbao Hiri Gaztea 2022-2025 Plana: helburuak, adin-tarteak eta jarduketaren eremuak.
24. gaia: Bilboren eta bertako barrutien deskribapen soziodemografikoa, adina, sexua eta nazionalitatea aintzat hartuta.
25. gaia: Gazteriaren Euskal Behatokia: helburuak, zereginak, zerbitzuak.
26. gaia: Gazte Informazio eta Dokumentazioaren Euskal Sarea: eskumenak, Sarea osatzen duten erakundeak, legeak.
27. gaia: Gazte informazio bulegoak: kudeaketa, plangintza eta zerbitzuak.
28. gaia: Gazte emantzipazioa eta horretarako baliabideak.
29. gaia: Gazte Bermearen sistema: definizioa, helburuak, jasotzaileak.
30. gaia: Eusko Jaurlaritzaren Gazte Plana.
31. gaia: Gazte politiken planak EAEn eta Bizkaiko Lurralde Historikoan.
32. gaia: Boluntarioen «Auzolandegiak» eta «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programak, Eusko Jaurlaritzarenak.
33. gaia: Gazte-elkarteen eta gazteentzako zerbitzu erakundeen Euskadiko errolda: erakunde jasotzaileak, beharrezko izapideak eta aplikatzen zaion araudia.
34. gaia: Proiektu soziokultural bat definitzea: jasotzaileak, helburuak, edukia, metodologia, komunikazioa.
35. gaia: Haur eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea: xedapen orokorrak, haur eta nerabeen eskubideak eta horiek egikaritzea.
36. gaia: Ume eta nerabeen lagun diren hiriak. Bilboko Udalaren kasua.
37. gaia: Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Sailaren nerabeentzako aisialdi sozio-dukutiboko programak.
38. gaia: Bilborock: jasotzaileak, guneak eta horiek erabiltzeko baldintzak. Gazteria eta Kirol Sailak bertan garatutako programak.
39. gaia: Gazte informaziorako udal bulego baten komunikazio-plana.
40. gaia: Bilboko Udalaren «Bilbao Gazte» plataforma digitala: webgunea eta sare sozialak, gazteekin komunikatzeko tresna gisa.
41. gaia: Bilbo, Kulturarteko Hiria III. Udal Plana: printzipioak eta esku hartzeko eremuak.
42. gaia: Herrera, kulturartekotasunaren ikuspuntutik.
43. gaia: Zurrumurruen aurkako elkarrizketetarako tresnak.
44. gaia: Kultura guztietako pertsonentzako parte-hartze prozesuak: zer da kultura guztietako herritarrentzako parte-hartzea? Kultura guztietako pertsonen parte-hartzearen aldeko argudioak. Gakoak.
45. gaia: 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritasuna: diskriminazio zuzena eta zeharkakoa, transbertsalitatea eta ekintza positiboa.
46. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarakoa: printzipio orokorrak eta zenbait jarduketa-esparrutako administrazio-jarduketan berdintasuna sustatzeko neurriak.
47. gaia: Bilboko Udalaren ordenantza, 2018ko azaroaren 29koa, andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerakoa.
48. gaia: Andrazkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunerako V. Udal Plana.
49. gaia: Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.



50. gaia: Udal esku-hartzea genero-indarkeriaren alorreko prebentzioan eta arretan, Bilboko Udalean: helburu orokorrak, jarduketa-ildoak, programak eta tresnak.
51. gaia: Indarkeria sexistaren aurkako Beldur Barik Programa, gazteei zuzendutakoa.
52. gaia: Elkartegintza: 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.
53. gaia: Gazteen parte-hartze egiturak estatuan eta autonomia-erkidegoan: gazteriaren kontseiluak.
54. gaia: 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa, eta Boluntario-tzaren Euskal Estrategia.
55. gaia: Bilboko Udalaren eta bere erakundeen eta zuzenbide publikoko entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarrien Ordenantza Orokorra.
56. gaia: Bilboko Udalaren urteroko dirulaguntza-deialdia, gazteriaren eremuan.
57. gaia: Bilboko elkarteak: Herritarren Partaidetzarako Erakundeen Udal Erregistroa.
58. gaia: Parte-hartze bidezko aurrekontuak Bilboko Udalean.
59. gaia: Parte-hartze bidezko prozesuak: parte hartzeko metodologiak. Zelan egin parte-hartze bidezko prozesu bat: diseinua, garapena eta ebaluazioa.
60. gaia: Herritarren parte-hartzea eta IKTak: online parte hartzeko moduak, herritarrek parte hartzeko IKT tresnak.

UDALA
AYUNTAMIENTO

Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

1.- Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: TÉCNICA/O MEDIO JUVENTUD						
Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso:	Lehiaketa Concurso	☐	Oposizioa Oposición	☐	Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición	☐
Txanda / Turno:	Askea / Libre	☐	Barne sustapena Promoción interna	☐	Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad	☐

2.- Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido		Izena / Nombre	
NAN / AIZ / DNI / NIE:	Naziotasuna / Nacionalidad		Jaioteguna / Fecha de Nacimiento:		Sexua / Sexo E. / M. ☐ G. / H. ☐
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico	

3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Ataria Portal	Eskailera Escalera	Solairua Piso	Eskua Mano	Atea Puerta
PK / CP:	Herria / Localidad		Probintzia / Provincia		Herrialdea / País	

4.- Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut (jarri "X" dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)							
1 HE / PL1	☐	2HE / PL2	☐	3HE / PL3	☐	4HE / PL4	☐
Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera							
1 HE / PL1	☐	2HE / PL2	☐	3HE / PL3	☐	4HE / PL4	☐

5.- Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.

Euskara / Euskera	☐	Gaztelania / Castellano	☐
-------------------	--------------------------	-------------------------	--------------------------

6.- Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:
Deialdian eskatutako beste dokumentu batzuk (gidabaimena eta bestelakoak) / Otros documentos exigidos (permiso de conducir, otros)

Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.

UDALA
AYUNTAMIENTO

7.- Merituak / Méritos

Merituen zerrenda / Relación de méritos

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriak, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

	Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. / Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao.
	EZ NAGO AURKA Bilboko Udalak, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun, IT txartel, gidabaimen eta Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEAN NAGO. Aurka eginez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren uneen. / QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que el Ayuntamiento de Bilbao consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos, IT Txartelas, permisos de conducción y servicios prestados en Administraciones Públicas alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes en el momento en el que sea requerido.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

UDALA
AYUNTAMIENTO**BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA**
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantzako Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001 Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazio Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkarria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art. eta hurrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litekeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litekeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Recursos Humanos del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, nº 2, 5ª planta, 48001 Bilbao.

La Delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (art. 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I., domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.